



LATXA ARRAZAKO ABEREEN MORFOLOGIA ETA GENETIKA HOBETZEKO LEHIAKETEN OINARRIAK

Inskripzioa

Lehiaketetan parte hartu nahi duten ganadutegiek Nafarroako latxa arrazako ardi hazleen elkartean inskribatu beharko dira, abuztuaren 18a baino lehen.

Lehiaketa:

Arrazaren liburu genealogikoan inskribaturiko latxa arrazako animaliek parte hartu ahal izanen dute lehiaketetan, betiere genealogia ziurtagiria aurkeztu eta 2021eko eta 2022ko kanpainetan esnearen kontrola egin badute.

Txapelketa morfologikoko sariak: (sariak mutur gorria eta mutur beltza kategorietarako izango dira)

- 1- Ardi helduetan lehendabizikoarentzat: Trofeoa eta 150 €
- 2- Ardi helduetan bigarrenarentzat: Trofeoa eta 100 €
- 3- Ardi helduetan hirugarrenarentzat: Trofeoa eta 50 €

- 1- Bildotsetan lehendabizikoarentzat: Trofeoa eta 150 €
- 2- Bildotsetan bigarrenarentzat: Trofeoa eta 100 €
- 3- Bildotsetan hirugarrenarentzat: Trofeoa eta 50 €

Hobekuntza genetikoaren txapelketako sariak: (sariak mutur gorria eta mutur beltza kategorietarako izango dira)

- Ardi hoberena esne kantitatean: Trofeoa eta 100 €
- Ardi hoberena esnearen koipe portzentaian: Trofeoa eta 100 €
- Ardi hoberena esnearen proteina portzentaian: Trofeoa eta 100 €
- Ardi hoberena errapearen txertaketan: Trofeoa eta 100 €
- Ardi hoberena Indize konbinatuan: Trofeoa eta 100 €
- Artalde hoberena intseminazio fertilitatean: Trofeoa eta 100 €

Horretarako, azken balorazio genetikoan oinarrituko gara.

